**LEMOAKO UDALEKO KULTURA ETA KIROL ARLOAREN DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA**

**1. artikulua.—*Diru-laguntzaren helburua***

Araudi honek Lemoako udalerri esparruan egin daitezkeen kultur, kirol, elkartasunezko eta ingurumen ekintzak sustatu eta hedatzeko diru-laguntzak arautzea du xede.

**2. artikulua.—*Onuradunak***

Onuradunak izango dira aurreko atalean azaldutako jarduera sustatzen edo egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak, nortasun juridikorik ez dutenak barne (elkarteen kasuan bertako burua izango da); beti ere, gizarte jarduerak egiten badituzte edo horrelakorik garatu nahi badute, oinarri hauetako 5. artikuluan ezarritako irizpideen arabera udalerriarentzat interesgarria bada, Lemoako Udalak burututakoak osatzeko.

Onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte diru-laguntza eskuratzeko:

- Irabazteko asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, fundazioak barne, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan izena emanda eta legez eratuta egotea, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea eta jarduerak Lemoako herritarrentzat zuzendutakoak izatea.
- Pertsona fisikoak izatea, noizbehinkako ekimenez talde baten ordezkari partikularrak direnak, irabazteko asmorik gabekoak badira eta udalerrian bizi badira.

**ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DEL AREA DE CULTURA Y DEPORTE DEL AYUNTAMIENTO DE LEMOA**

**Artículo 1.—*Objeto de la subvención***

Es objeto de la presente normativa fijar el régimen de subvenciones y ayudas para promocionar y difundir el desarrollo de actividades culturales, deportivas, solidarias y medioambientales del ámbito municipal de Lemoa.

**Artículo 2.—*Beneficiarias/os***

Tendrán la consideración de beneficiarias/os, toda persona física o jurídica incluidas las que no tienen personalidad jurídica (en caso de asociaciones será beneficiaria/o el o la presidenta de la misma) que promueva o realice la actividad descrita en el punto anterior y que pretenda desarrollar o realice actividades de carácter social que, atendiendo a los criterios que se recogen en el artículo 5 de estas bases, resulte de interés para el municipio de manera que complemente las llevadas a cabo por el Ayuntamiento de Lemoa.

Los requisitos que deberán reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención, son los siguientes:

- Ser entidades o asociaciones sin ánimo de lucro, incluido fundaciones, legalmente constituidas y registradas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco con sede en el territorio histórico de Bizkaia y que desarrollen sus actividades dirigidas a los habitantes de Lemoa.
- Ser personas físicas, en representación particular de un grupo por iniciativa de carácter esporádico, sin finalidad de lucro y con residencia en el municipio.

**3. artikulua.—*Aurrekontu-zuzkidura***

Diru-laguntza horietarako urtaldi bakoitzeko Udal Aurrekontuan helburu horretarako aurreikusitako zenbatekoa erabiliko da.

**4. artikulua.—*Diru-laguntza emateko prozedura***

Diru-laguntza hauen deialdia alkatetzak egingo du iragarki bidez. Iragarki hori ***Bizkaiko Aldizkari Ofizial**ean* **eta iragarki-oholean** argitaratuko da, gutxienez.

*Eskabideak aurkeztea:*

a) Eskabidea, Udaleko alkate-udalburuari zuzenduta egongo dena, I. ERANSKINeko ereduari jarraiki aurkeztuko da Udaleko sarrera erregistroan edo Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako edozein bidetatik. Horretarako <u>hogei eguneko epea izango da, deialdia BAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.</u>

b) Udalak herriko elkarteei deialdia noiz izango den jakinaraziko die.

c) Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea aurkezten duenaren NAren kopia.
- Erakundearen IFKren kopia, erakunde juridikoa bada.
- Diruz laguntzea eskatuko den jarduera edo ekitaldiaren proiektu zehaztua. Horrek, gutxienez, honakoak jaso behar ditu: proiektuaren azalpena, xede taldea, ekintzarekin lortu gura den helburua, jarduerak Lemoako udalerriari dakarkion ekarpena eta ekintzen lekua zein data.
- Proiektua eta eskabidea euskaraz aurkeztu beharko da edo euskaraz eta gazteleraz.

**Artículo 3.—*Dotación presupuestaria***

Se destinará a la concesión de estas subvenciones la cantidad prevista para tal fin dentro del Presupuesto Municipal de cada ejercicio.

**Artículo 4.—*Procedimiento para la Concesión de la Subvención***

La convocatoria de estas subvenciones se efectuará por la Alcaldía, mediante anuncio que será publicado como mínimo en el **Boletín Oficial de Bizkaia y el Tablón de anuncios.**

*Presentación de solicitudes:*

a) La solicitud, dirigida a la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento, se presentará de acuerdo con el modelo que figura como ANEXO I, en el Registro de entrada del Ayuntamiento o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, <u>en el plazo de veinte días hábiles desde la publicación de la convocatoria en el BOB.</u>

b) El Ayuntamiento notificará a los grupos las fechas de la convocatoria.

c) Documentación a aportar será la siguiente:

- Fotocopia del DNI del que presenta la solicitud.
- Fotocopia del CIF de la entidad, en caso de tratarse de una entidad jurídica.
- Proyecto detallado de la actividad o evento para el que se solicita la subvención, incluyendo al menos, descripción del proyecto, población a la que se dirige la actividad, objetivos que se persiguen y referencia expresa al interés que la actividad implique para el municipio de Lemoa, con indicación así mismo de lugares y fechas de celebración.
- El proyecto y la solicitud se presentarán en euskera o en euskera y castellano.

- Eskabidea aurkeztutako urteko aurrekontua, diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduera edo proiektuari dagokionez.
- Eskatzailea irabazteko asmorik gabeko elkarte edo fundazioa bada, dagokion erregistroan izena emateko ziurtagiria aurkeztu beharko du, bai eta erakundearen estatutuak ere, izena emanda duen erregistroak behar bezala zigilatuta.
- Ogasunak egindako agiria, zerga--betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duena. Zergak Lemoako Udalari soilik ordaindu behar dizkioten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berariazko aitorpena. Udalak berak ofizioz emango du aipatutako egiaztagiria.

— Eskatzaileak, indarreko legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behartze--harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.

Pertsona edo erakunde batek oraindik ere Udalak aurretiaz emandako diru-laguntzei buruzko justifikazioren bat aurkeztu ez badu, ez da bere eskabidea kontuan hartuko.

Aldi berean beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu bada, Lemoako Udalean aurkezten den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, jaso den zenbatekoa.

Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Udalak eskatzaileari ekintza zehatz bakoitzari dagokion beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

- Presupuesto del año en que se cursa la misma, relativos a la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención.
- Si la solicitante es una asociación o fundación sin ánimo de lucro, deberá aportar certificado de inscripción en el registro correspondiente, así como de los estatutos de la entidad, debidamente sellados por el registro en que la misma se encuentre inscrita.
- Certificado de Hacienda acreditativo de estar al corriente de las obligaciones fiscales. En el supuesto de asociaciones cuya única obligación tributaria lo sea para con el Ayuntamiento de Lemoa, incluirán en la solicitud declaración expresa en tal sentido, siendo el propio Ayuntamiento el que aporte de oficio el certificado mencionado.

— Cuando la entidad solicitante, de acuerdo con la legislación vigente tuviera relación obligacional con la Seguridad Social, habrá de presentar certificado emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social, acreditativo de estar al corriente de sus obligaciones con la misma.

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes formuladas por personas o entidades que tengan pendiente la presentación de la debida justificación de subvenciones recibidas del Ayuntamiento en ocasiones anteriores.

En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Lemoa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de las instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación y la cuantía solicitada, o en su caso, recibida.

Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a la entidad solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

Eskatutako dokumentuak dagoeneko Udalak badauzka, eskatzaileak horiek ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez bada. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.

En el supuesto de que los documentos exigidos ya estuvieran en poder del Ayuntamiento, la asociación solicitante, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, podrá hacer uso de su derecho a no presentarlo, haciendo constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o emitidos.

Oinarri hauetan, salbuespen gisa, onartu egingo da agiri jakin batzuen ordez eskatzailearen erantzukizun-adierazpena izateko aurreikuspena ezartzea. Hala denean, diru-laguntza emateko erabaki proposamena egin baino lehen, adierazpen horrek dakartzan datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa gehienez hamabost eguneko epean aurkezteko eskatu beharko da.

En estas Bases y con carácter excepcional se admitirá la sustitución de la presentación de determinados documentos por una declaración responsable de la persona solicitante. En este supuesto, con anterioridad a la propuesta de resolución de concesión de la subvención, se deberá requerir la presentación de la documentación que acredite la realidad de los datos contenidos en la dictada declaración, en un plazo que no deberá ser superior a quince días.

Eskabideak oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak interesdunari agindeia egingo dio akatsa zuzen dezan. Horretarako, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoen bezala. Eskumena duen organoak diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzen onuradunen artean.

Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en estas bases, el órgano competente requerirá a la asociación interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992. El órgano competente procederá al prorrateo entre las asociaciones beneficiarias de la subvención del importe global máximo destinado a las subvenciones.

*Prozedura izapidetzea:*

Kultur arloko teknikariak **bideratuko ditu** laguntza hauek.

Prozedura izapidetzeko jarduera hauek egingo dira:

- Diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatu.
- Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu.
- Eskabideak ebaluatu, baloratzeko irizpide, modu eta lehentasunen arabera. Horiek guztiak oinarri honetan zehaztuta daude.

*Instrucción del procedimiento:*

El **órgano instructor** será el o la técnica de cultura.

Las actividades de instrucción comprenderán las siguientes fases:

- Verificación del cumplimiento de las condiciones impuestas para adquirir la condición de asociación beneficiaria de la subvención.
- Petición de cuantos informes se estimen necesarios para resolver.
- Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme a los criterios, formas y prioridades de valoración, que se definen en la base siguiente.

Eskabideak ebaluatu ondoren, espedientea igorriko zaio eskabideoi buruzko txostenak egin behar dituen kide anitzeko organoari. Organo hori **Diru-laguntzen Emakidako Batzordea** deituko da, eta honako kideek osatuko dute:

— Presidentea: Arloko burua edo zinegotzia.
— Batzordekideak:
-Arloko teknikaria.
-Udal alderdi guztietako ordezkari bana.
-Ekonomilaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.
-Herriko kultur taldeetako ordezkari bana.
-Herriko kirol taldeetako ordezkari bana.
-Herriko elkartasun eta ingurumen taldeetako ordezkari bana.
— Idazkaria: Udaleko idazkari-artekaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Kirol, kultur, elkartasun eta ingurumen taldeetako ordezkariek ezin izango dute parte hartu bere elkarteari dagokion diru-laguntzaren ebazpenean.

Espedientea eta Diru-laguntzen Emakidako Batzordearen organoaren txostena ikusita, organo instruktoreak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Hori deialdian ezarri bezala jakinarazi beharko zaie interesdunei.
Interesdunek aipatutako bitarteko alegazio eta frogak soilik hartuko dira kontuan.

Behin betiko ebazpen-proposamenean hauek bildu beharko dira:

- Diru-laguntza emateko proposatu diren eskatzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.
- Ebaluazioaren nahiz berori egiteko irizpideen zehaztapena.

Una vez evaluadas las solicitudes, se remitirá el expediente al órgano colegiado que emitirá informes sobre las solicitudes. Dicho órgano, que se denominará **Comisión de Concesión de Subvenciones,** estará formado por las siguientes personas:

— Presidenta/e: Concejal/a de Área.
— Vocales:
-Técnica/o del área.
-Una persona representante de cada partido con representación municipal.
-Economista o persona en quien delegue.
-Una persona representante de cada grupo cultural del municipio.
- Una persona representante de cada grupo deportivo del municipio.
- Una persona representante de cada grupo de asociaciones solidarias y medioambientales.
— Secretaria/o: secretaria/o-interventor/a o persona en quien delegue.

Las personas representantes de los grupos culturales, deportivos, solidaridad y medioambientales deberán abstenerse en la propuesta relativa a sus correspondientes asociaciones.

A la vista del expediente y del informe de la Comisión de Concesión de Subvenciones, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución definitiva, debidamente motivada, que deberá notificarse a los y las interesadas en la forma que se establezca en la convocatoria. No se tendrán en cuenta otros medios ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los y las interesadas.

La propuesta de resolución definitiva deberá contener:

- La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención.
- La cuantía específica de la subvención.
- Especificación de la evaluación y los criterios seguidos para efectuarla.

*Ebazpena:*

Alkateak edo Udaleko Osoko Bilkurak onetsiko du behin betiko ebazpena. Ebazpena arrazoitu egingo da, eta edonola ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak ziurtatu beharko dira.

Ebazpenean azaldu beharko da diru--laguntza jasoko duen eskatzaile-zerrenda, eta gainontzeko eskabideen gaitzespena ere bai. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea **HIRU hilabete**koa da. Epea zenbatuko da deialdi egokia argitaratzen denetik aurrera, baldin eta deialdiak geroagoko egun baterako atzeratzen ez badu.

Ebazpena, gutxienez, iragarki-oholean eta, era berean, horren laburpen bat **Bizkaiko Aldizkari Ofizialean** argitaratuko da.

Udalak kultur eta kirol taldeei jakinarazpena bidaliko die.

Diru-laguntza emateko ebazpenak bukaera emango dio administrazio bideari eta, horrenbestez, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango da bere aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; horixe ezarri baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1989 Legearen 10. eta 46. artikuluetan eta horiekin bat datorren urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109. c) artikuluan (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuena).

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazi den berariazko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

*Resolución:*

La Alcaldesa/El Alcalde o El pleno del Ayuntamiento, en su caso, aprobará la resolución definitiva. La resolución se motivará y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte.

Deberá contener la persona solicitante o la relación de solicitantes a los que concede la subvención y la desestimación del resto de las solicitudes. El plazo máximo de resolución y notificación es de **TRES meses**. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria, salvo que ésta posponga sus efectos a una fecha posterior.

La resolución se publicará, como mínimo, en el tablón de anuncios así como de un extracto de la misma en **el Boletín Oficial de Bizkaia.**

El Ayuntamiento les notificará a los grupos culturales y deportivos dicha resolución.

La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa, por lo que se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, Recurso Contencioso Administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a tenor de lo establecido en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1989 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso- Administrativa, en concordancia con el artículo 109 c) de la Ley 4/1999 de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa una vez notificada, podrá interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Hori guztia bat dator urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116 eta 117. artikuluekin eta horiekin bat datozenekin. Nolanahi ere, nahi duenak bere eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein errekurtso jar dezake edo zernahi ekintza bidera dezake.

Ebazpena jakinarazi gabe gehieneko epea mugaeguneratzen bada, interesdunek emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela adierazi gura du.

**5. artikulua.—*Diruz lagunduko diren kontzeptuak eta diru-laguntzak esleitzeko irizpideak***

**Diruz lagunduko diren kontzeptuen zerrenda:**

1. Soldatak/dietak: entrenatzailea, zuzendaria, begiralea
2. Aholkularitza lanak
3. Komunikazioa: telefonoa
4. Materiala (derrigorrezkoa izango da materiala zehaztea, ekintza aurrera eramateko beharrezkoa den baloratu ahal izateko)
5. Eskolaz kanpoko ekintzak (igeriketa, dramatizazioa, zeramika, zirkoa, psikomotrizitatea, ingelesa, euskaraz abestu eta jolastea, xakea…)
6. Kuotak: BIGE, Futboleko Federazioa, BAE
7. Euskara dinamizatzeko proiektua
8. Inauteriak eta eskola-jaiak (kontzeptuak zehaztu)
9. Eskolako baratza eta lorategia
10. Irakaskuntza- jarduera osagarri kulturalen programa
11. Irakaskuntza- jarduera osagarri curricularren programa
12. Irteerak: garraioa (Udalak gehienez % 60 lagunduko du)
13. Irteerak: bisitaldien sarrerak
14. Irteerak: *hamaiketakoak* (soilik umeen ekintzetan)
15. Emanaldiak (kontzeptuak zehaztu, diruz lagundu daitezkeen baloratu ahal izateko)
16. Lehiaketak / Txapelketak (kontzeptuak zehaztu, diruz lagundu daitezkeen baloratu ahal izateko)

Todo ello conforme a lo establecido en los artículos 116, 117 y concordantes de la Ley 4/1999 de 13 de enero, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a los y las interesadas da a entender desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo.

**Artículo 5.—Conceptos subvencionables y *criterios para la asignación de subvenciones***

**Relación de los conceptos que serán subvencionados:**

1. Sueldos/dietas: entrenador/a, director/a, monitor/a
2. Trabajos de asesoría
3. Comunicación: teléfono
4. Material (será obligatorio detallar el material, para poder valorar si es necesario para llevar a cabo la actividad)
5. Actividades extraescolares (natación, dramatización, cerámica, circo, psicomotricidad, inglés, cantar y jugar en euskera, ajedrez…)
6. Cuotas: BIGE, Federación de Futbol, BAE
7. Proyecto de dinamización de euskera
8. Carnavales y fiestas escolares (detallar conceptos)
9. Huerto y jardín de la escuela
10. Actividades de enseñanza complementaria del programa cultural
11. Actividades de enseñanza complementaria del programa curricular
12. Salidas: transporte (el Ayuntamiento subvencionará como máximo el 60%)
13. Salidas: entradas visitas
14. Salidas: *hamaiketakoak* (únicamente en actividades infantiles)
15. Proyecciones (detallar conceptos, para poder valorar si son subvencionables)
16. Concursos / Campeonatos (detallar conceptos, para poder valorar si son subvencionables)

17. Hitzaldiak / Tailerrak
18. Formakuntza (beti ere ekintzarekin guztiz lotuta badago, eta inoiz ez ikasketa ofizialak)
19. Aste Kulturaleko ekintzak (maiatza)
20. Kirol asteko ekintzak (azaroa)
21. Udalarekin bat antolatutako ekintzak: jubilatu eguneko emanaldia eta nagusienen opariak, San Inazio eguneko emanaldia eta horretarako soinu-aparatuak jartzea
22. Udaberriko kontzertua Lemoan: luntxa
23. Ikastaro hasiera eta amaierako jaialdiak (kontzeptuak zehaztu)
24. Errege Magoei harrera elizan
25. Jokalarien fitxak, aseguruak eta azterketa medikoak (ekintza aurrera eramateko hauek guztiz derrigorrezkoak direnean)

17. Charlas / Talleres
18. Formación (siempre que esté totalmente relacionada con la actividad, y en ningún caso estudios oficiales)
19. Actividades Semana Cultural (mayo)
20. Actividades Semana del Deporte (noviembre)
21. Actividades organizadas con el Ayuntamiento: actuación del día de las personas jubiladas y regalos para las personas más mayores, actuación del día de San Ignacio y su sonorización
22. Concierto de Primavera en Lemoa: lunch
23. Fiestas de inicio y fin de curso (detallar conceptos)
24. Recepción en la iglesia de los Reyes Magos
25. Fichas jugadoras/es, seguros y reconocimientos médicos (siempre que sean totalmente imprescindibles para llevar a cabo la actividad)

Oharra: diru-laguntza eskaeran kontzeptu zehatzak agertzea derrigorrezkoa izango da, hau da, justifikazio ekonomikoa aurkezten denean fakturetan agertuko den kontzeptuak agertu behar dira.

Nota: en la solicitud de subvención será obligatorio detallar conceptos específicos, es decir, deberán figurar los conceptos que aparecerán en las facturas cuando se presente la justificación económica.

**Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak:**

1. Euskara. Elkartearen jardueretan euskararen erabilera, ahoz zein idatziz, puntuatuko da, elkarteak burutzen dituen jardueren barne zein kanpoko jardueretan. 25 puntu.

Udalak 15 puntu neurtuko ditu:
5 puntu: elkarteak euskararen erabilera areagotzeko Udalarekin akordioa sinatuta izatea.
10 puntu: Udalarekin euskararen erabilera areagotzeko akordioan jasotako urteko konpromisoak bete izana.

Elkarteak aitortutakoaren arabera 10 puntu neurtuko dira:
2 puntu: euskararen erabilera elkarteko barne-funtzionamenduan.
8 puntu: euskararen erabilera kanpora begira gauzatu diren ekintzetan.

**Criterios para la asignación de subvenciones:**

1. Euskera. Se puntuará el uso del euskera en las actividades de la asociación, tanto oral como escrito, en el funcionamiento interno y externo de las actividades llevadas a cabo por la asociación. 25 puntos.

El Ayuntamiento valorará 15 puntos:
5 puntos: tener firmado el acuerdo con el Ayuntamiento para fomentar el uso del euskera.
10 puntos: Cumplimiento de los compromisos del año acordados en el acuerdo con el Ayuntamiento para el fomento del uso del euskera.

Se valorarán 10 puntos en base a lo que la asociación declare:
2 puntos: el uso del euskera en el funcionamiento interno de la asociación.
8 puntos: actividades que se desarrollan cara al exterior.

Horretarako, elkarte bakoitzak txantiloi baten jarduera guztietan (egindako karteletan, ekintzetan, bileretan, web-orri, sare sozial edo blogean…) erabilitako hizkuntza zehaztuko du.

2. Berdintasuna. Jarduerak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapenean izan duen eragina. 5 puntu.

Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak erraztuko digu irizpide hau neurtzeko txantiloia. Lau maila desberdin neurtuko dira, eta datuak generoaren arabera bereiziko dira:
-Zuzendaritza
-Bazkideak
-Hartzaileak
-Ekintza (kasu honetan ekintzaren edukia baloratuko da, berdintasunaren sustapenean duen eraginaren arabera)

3. Elkarteak herrian duen ibilibidea eta bazkide kopurua. 10 puntu.

Elkarteak herrian duen ibilbidea: 5 puntu / Bazkide kopurua: 5 puntu.

Parametro hauen barruan zehaztuko da puntuazioa:

-Elkarteak herrian duen ibilbidea: 30 urte edo gehiago, 5 puntu / 15-29 urte bitartean, 3 puntu / 0-14 urte bitartean, puntu 1.

-Lemoan erroldatutako bazkide kopurua: 100 bazkide baino gehiago, 5 puntu / 50-99 bazkide bitartean, 3 puntu / 1-49 bazkide bitartean, puntu 1.

4. Hartzaileak. Ekintzak berak erakarri duen (parte-)hartzaile kopurua eta elkarteak adin tarte desberdineko jendea erakartzeko duen gaitasuna. 25 puntu.

Irizpide hau neurtu ahal izateko, azken urtean gauzatu diren ekintzetan parte hartu duen pertsona kopurua kontuan hartuko da, horietatik zenbat ume, gazte eta helduk parte hartu duen bereiziz.

5. Ekintzak. Ekintza kopurua, edukia eta aniztasuna. 20 puntu.

Para ello, cada asociación detallará en una plantilla el idioma utilizado en las actividades (en los carteles que realice, en las actividades, en las reuniones, en la página web o blog…).

2. Igualdad. Incidencia de la actividad en la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres. 5 puntos.

Técnica/o de Igualdad de la Mancomunidad nos facilitará la plantilla para valorar este criterio. Se medirán 4 niveles, y los datos se diferenciarán por género:
-Junta directiva
-Socias/os
-Participantes
-Actividad (en este caso se valorará el contenido de la actividad, en relación de la incidencia de la misma en la promoción de la igualdad)

3. Arraigo de la asociación en el municipio y número de socios/as. 10 puntos.

Arraigo de la asociación en el municipio: 5 puntos / Número de socias/os: 5 puntos.

La puntuación se establecerá en base a los siguientes parámetros:

-Arraigo de la asociación en el municipio: 30 años o más, 5 puntos / entre 15-29 años, 3 puntos / entre 0-14 años, 1 punto.

-Número de socias/os empadronadas/os en Lemoa: más de 100 socias/os, 5 puntos / entre 50-99, 3 puntos / entre 1-49, 1 punto.

4. Participantes. Número de participantes que atraiga la propia actividad y la capacidad de la asociación para atraer gente de diferentes rangos de edad. 25 puntos.

Para poder medir este criterio, se tendrá en cuenta el número de participantes de las actividades llevadas a cabo el último año, diferenciando cuántos niñas/os, jóvenes y adultas/os han participado.

5. Actividades. Cantidad, contenido y variedad de las actividades. 20 puntos.

Kasu honetan, gauzatuko diren ekintzen zerrenda aurkeztu beharko da, ekintza bakoitzaren helburu zehatza definituz.

En este caso, deberá presentarse el listado de las actividades que se llevarán a cabo, definiendo el objetivo concreto de cada actividad.

6. Elkarlana. Udalarekin bat edota beste elkarteren batekin batera aurrera eraman diren ekintzak. 15 puntu.

6. Trabajo colectivo. Actividades realizadas en común con el Ayuntamiento y/o con alguna otra asociación. 15 puntos.

Oraingoan, ekintzen zerrendan zehaztuko dira Udalarekin bat gauzatuko diren ekintzak eta beste elkarteekin elkarlanean egingo direnak.

En esta ocasión, en el listado de actividades, se detallará cuáles son las actividades que se desarrollarán junto al Ayuntamiento y/o las que se llevarán a cabo en común con otras asociaciones.

Proiektu bakoitza dagokion arlo edo sailak osorik baloratuko du. Hark aholkua eskatu ahal izango die egokitzat jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

Cada uno de los proyectos será valorado, en su conjunto, por el área o departamento correspondiente, el cual podrá solicitar asesoramiento a aquellas personas o entidades que considere oportuno.

**6. artikulua.—*Zenbatekoa***

— Eskatutako zenbatekoan ehuneko jakin bat aplikatuz aterako den diru-kopurua izango da diru-laguntza. 5. artikuluan azaldutako irizpideak aintzat hartuta lortutako puntuazioa izango da ehuneko hori.

— **Jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa ez da izango jarduera horietarako aurkeztutako aurrekontu osoaren % 85** baino handiagoa.

--- Elkarte bakoitzak jasoko duen diru-laguntzaren zenbatekoa inoiz ezin izango da izan Udaleko aurrekontuko partidaren % 35 baino handiagoa.

— Diru-laguntzak beste erakunde publiko nahiz pribatuk xede horretarako ematen dituztenekin bateratu ahal izango dira, baina inola ere ez da egongo behar baino gehiagoko finantziaziorik; hau da, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batuta, diru-laguntzak ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.

— Diru-laguntzak batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, onuradunak itzuli beharko du Lemoako Udalak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

**Artículo 6.—*Cuantía***

— La subvención consistirá en una suma de dinero que se fijará aplicando un porcentaje sobre la cuantía solicitada. Dicho porcentaje consiste en la puntuación obtenida en atención a los criterios aludidos en el artículo 5.

— **El total de la cantidad con la que se subvencionen las actividades no superará el 85 % del total del presupuesto** presentado para la misma.

--- El importe de subvención por asociación, nunca podrá ser superior al 35% del importe de la partida presupuestaria municipal de cada ejercicio destinada para este fin.

— Las subvenciones serán compatibles con cualquier otra, concedida por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, es decir, sin que el importe total subvencionado en concurrencia con otras entidades pueda superar el total de la actividad.

— En caso de producirse un supuesto de sobrefinanciación por concurrencia de subvenciones, la asociación beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Lemoa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.

**7. artikulua.—*Justifikatzea eta kobratzea***

Diru-laguntza ordaintzeko, aurretiaz, onuradunak justifikatu egin beharko du babestutako jarduera edo proiektua burutu dituela, oinarri hauetako 11. artikuluan xedatutako kasurako izan ezik.

Diru-laguntza eskuratzeko Udalari dokumentazio hau aurkeztu beharko zaio, II. ERANSKINeko ereduari jarraiki:

- Egindako jardueraren memoria, udalerriko onuradunak adieraziz
- Jarduerak eragindako diru-sarrera eta gastuen balantzea.
- Jardueraren ondorioz sortutako gastu guztien jatorrizko ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio duten beste frogagiri baliokideak izango dira.
- Diruz lagundutako jarduerak diru--laguntzarekin bakarrik ez funts propioen edo bestelako diru-laguntzen edo baliabideen bidez ere finantzatzen direnean, funts horietan diruz lagundutako jardueren erabilera, zenbatekoa eta jatorria ziurtatu beharko dira egiaztagirian.
- Diru-laguntzearen helburua bete dela egiaztatzen duen adierazpena.
- Onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ordainduta dituela dioten ziurtagiriak.

- Frogagiriak diruz lagundutako urteko jarduera burutu eta hurrengo bi hilabeteen barruan aurkeztu beharko dira, baldin eta deialdian beste epe bat ezarri ez bada.
- Egindako jardueren memoria euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz aurkeztu beharko da.

**Artículo 7.—*Justificación y cobro***

El pago de la subvención se realizará previa justificación por la asociación beneficiaria, de la realización de la actividad o proyecto patrocinados, salvo para el caso dispuesto en el artículo 11 de estas bases.

Para percibir la subvención será necesario presentar al Ayuntamiento, la siguiente documentación, de acuerdo con el modelo que figura como ANEXO II:

- Memoria de la actividad realizada, con indicación de las personas beneficiarias del municipio
- Balance de ingresos y gastos originados por la actividad.
- Justificantes originales de los gastos totales devengados como consecuencia de la actividad. Tales justificantes consistirán en facturas u otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.
- Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención del Ayuntamiento, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberán acreditarse el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.
- Declaración acreditativa de que se ha cumplido la finalidad para la que se concedió la subvención.
- Certificados acreditativos de que la persona beneficiaria se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

- La documentación justificativa deberá presentarse en el plazo de dos meses desde la finalización de la actividad anual subvencionada, salvo que en la convocatoria se establezca otro específico.
- La memoria de las actividades realizadas se presentará en euskera o en euskera y castellano.

**8. artikulua.—*Itzulketa***

1. Ondorengo kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta berandutze-interesak eskatzea (Diru-laguntzen gaineko Lege Orokorreko 38.2 artikuluan zehaztutako zenbatekoa) diru-laguntza ordaintzeko egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte:

a) Diru-laguntza helburu baterako eskatu eta beste baterako erabiltzea.
b) Diru-laguntza lortzeko beharrezko baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzea.
c) Onuradunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, araudi honen eta zehazki 6. artikuluaren arabera onuradunak hartutako betebeharrak ez betetzea.

d) Diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu beharra oinarri hauen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera ez betetzea. Gastuaren justifikazio partziala egiten bada, justifikatu gabe geratzen den gastuaren zenbatekoa itzuli beharko da.

e) Jardueraren benetako kostuarekin alderatuta gehiegizko finantziazioa egon bada, soberako zenbatekoa itzuli beharko da.
f) Beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, onuradunak itzuli beharko du Lemoako Udalak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

g) Diru-laguntza emateko ebazpenean jarduera egiteko edo proiektua burutzeko moduari buruz onuradunei ezarritako baldintza edo betebeharrak ez betetzea. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko da ez-betetzeen larritasuna, zuzentasun eta proportzionaltasun oinarriak kontuan hartuta.

**Artículo 8.—*El Reintegro***

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, y en la cuantía fijada en el artículo 38.2 de la Ley General de Subvenciones, en los siguientes casos:

a) No destinar la cuantía concedida a la finalidad concreta para la que se solicitó.
b) Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
c) El incumplimiento, por razones imputables a la asociación beneficiaria, de las obligaciones asumidas en aplicación de la presente Normativa y en concreto de lo dispuesto en su artículo 6.
d) El incumplimiento de la obligación de justificación en los términos establecidos en el artículo 8 de las presentes bases. Si se realizase una justificación parcial del gasto, habrá de reintegrarse la cantidad equivalente al gasto que haya quedado sin justificar.
e) El exceso de financiación con relación al coste real de la actividad, en cuyo caso habrá de reintegrarse la suma restante.
f) La sobrefinanciación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la asociación beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Lemoa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.
g) El incumplimiento de las condiciones u obligaciones impuestas al personal beneficiario en la resolución por la que se concediera la subvención, referentes al modo de realización de la actividad o ejecución del proyecto. En este caso, se tendrá en cuenta la gravedad de los incumplimientos cometidos para determinar la cuantía a reintegrar, atendiendo a los principios de equidad y proporcionalidad.

2. Edonola ere, zati batean edo guztiz itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira zuzentasun eta proportzionaltasun oinarriak. Horretarako, kasu zehatz bakoitzaren egoera aztertuko da.

3. Itzulketa eskatzeko ebazpena emango du diru-laguntza eman zuen organoak berak.

4. Itzulketa espedienteak Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. Tituluan ezarritako prozedurazko arauak bete beharko ditu. Espediente horren bidez interesdunari entzunaldi izapidea emango zaio 15 laneguneko epean.

5. Diru-laguntza itzultzeko betebeharra dagoela egiaztatu eta gero, eskumena duen organoak betebehar hori adierazteko ebazpena emango du. Ebazpen horretan arrazoiak eman beharko dira, eta beren-beregi adierazi beharko da itzultzeko betebeharra sortu duen arrazoia, bai eta itzuli beharreko zenbatekoa eta dirua borondatez sartzeko epea; halaber, aurreikusitako epean itzulketa egin ezean premiamendu-bideari ekingo zaiola ohartaraziko zaio.

**9. artikulua.—Berme-neurriak**

Lemoako Udalak aurkeztutako dokumentazioan adierazita dauden datuak benetakoak diren eta laguntza eskuratzeko eskakizunak betetzen diren egiaztu ahal izango ditu.

Onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du eskatutako datuak emanez.

2. Para determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

3. La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención.

4. El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título VI de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de audiencia a las personas interesadas por el plazo de 15 días hábiles.

5. Verificada la obligación de devolución de subvención, el órgano competente dictará resolución declarando tal deber. Dicha resolución será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, así como la cuantía que ha de devolverse y plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que, en caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por la vía de apremio.

**Artículo 9.—*Medidas de garantía***

El Ayuntamiento de Lemoa podrá comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación presentada así como los requisitos para la percepción de la ayuda.

La asociación beneficiaria tendrá la obligación de colaborar en dicha inspección, proporcionando los datos requeridos.

**10. Artikulua—Aurreordainketa *eta kontuko abonuak***

Urteko diru-laguntzak direnean edo ohiko jardueretarako erabiliko denean, aurreordainketak eta kontuko abonuak bideratu ahal izango dira. Gauza bera gertatuko da Lemoako Udalaren diru-laguntza jarduera garatzeko ezinbesteko finantziazioa denean, finantzatzeko beste bide nahikorik ez dagoelako.

Aurreko kasu horietan ez da inolako bermerik eskatuko.

**11. artikulua.—*Ebazpena aldatzea***

Diru-laguntza bat emandakoan, erakunde emaileak aldatzea erabaki ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, **Diru--laguntzen Emakidako Batzordeak** txostena egin ondoren, baldin eta balorazio irizpideei eragiten ez badie eta diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintza, elementu edo baldintzak aldatzen ez badira. Hori dela eta, berriro aztertu beharko da emandako diru--laguntza hori.

**12. artikulua.—*Diru-laguntzen bateragarritasuna***

Diru-laguntza hauek eman arren beste edozein diru-laguntza edo laguntza ere eman ahal izango da.

Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera.

Onuradunak helburu bererako jaso dituen bestelako diru-laguntzak, laguntza publikoak, sarrerak edo baliabideak jakinarazi beharko dizkio erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari.

**Artículo 10.—*Pagos anticipados y abonos a cuenta***

Se podrá realizar pagos anticipados y abonos a cuenta en el caso de subvenciones anuales o para la actividad habitual así como en aquellos otros casos en que la subvención del Ayuntamiento de Lemoa constituya financiación imprescindible para el desarrollo de la actividad por inexistencia de otros medios de financiación suficientes.

No se exigirá garantía alguna en los casos anteriores.

**Artículo 11.—*Modificación de la resolución***

Concedida una subvención, a solicitud de la asociación interesada, podrá acordarse por el órgano concedente su modificación, previo informe de **la Comisión de Concesión de Subvenciones**, siempre que no afecte a los criterios de valoración y que las condiciones, elementos o circunstancias que se tuvieron en cuenta para conceder la subvención se han visto modificados por lo que es necesario proceder a una revisión de la subvención concedida.

**Artículo 12.—*Compatibilidad de las subvenciones***

La concesión de estas ayudas será compatible con cualquier otro tipo de subvención o ayuda.

En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

La entidad beneficiaria tendrá la obligación de comunicar al órgano concedente o a la entidad colaboradora la obtención de subvenciones, ayudas públicas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

**13. artikulua.—*Arau-hausteak eta zehapenak***

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan eta aplikatu ahal den gainontzeko legedian ezarritakoa izango da.

**Artículo 13.—*Infracciones y sanciones***

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003. de 17 de noviembre, y demás legislación que resulte aplicable.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau 2017ko urtarilaren 1ean sartuko da indarrean, eta horrela iraungo du, Udalak hori aldatu edota indargabetzea erabakitzen ez duen artean.

**DISPOSICION FINAL**

La presente Ordenanza entrará en vigor el 1 de enero de 2017, teniendo la misma vigencia mientras tanto el Ayuntamiento no acuerde su modificación o derogación.